



## OROLDI - LAROSEA



IREN'ek, goizean goizetik,  
erira bialdu eban Josu.

—Zoaz, ene seme, diño-  
tsa, ta dagokigun lan eski-  
ña eskatu. Txiro bizi ga-  
ra, ta zure ama lu-  
zaro lan barik ba-  
dago, bear-beare-  
koak be uts egingo  
dausku. Joan zai-  
tez, ta Miren'ek,

arotzaren emazteak bialduta zoazala, esan.

Amaren esana egiñik, ba-doa Josu.

Eta etxera biurkeran, seda-karga andia bizkaíean  
ebala etoñen; zikirio edo seda ori bere amak irungo  
eban, etxeko atadian, palmondo ori-urdin baten keriz-  
pean jarita.

Bero kiskalgaría; eguzki biribila otoi bako zerutik  
zut-zut izpi-dardairik ixatuenak jaurtika.

Lorak buru-makur; egariz aulduta, zimel.

Nekien-nekez abailduta, geldiro dabil Josu ona. Bere  
esku bigunak ezin eutsi ain zama astunari.

Alan eta guzti be, ez dator arpegi-ilun.

Besteria, eztitsu bare dago, ta zerura jasorik begi eder  
biak:

—Ene Aita, diño, lor eta atsekabe bari oneik eskintzen  
dautzudaz; baña alperikoak ezpeitez izan. Zigortu nagi-  
zu ta gizonak gaizkatu.

Otoi onek indar bariak damotsaz, ta adoretzu ekafen

bideari daraikio. Baña bat-batean indarāk uts-emon: soin nekatua zerbait atsedendutearen, toki berezia aurkitu gura dau.

Baña, jai! muño ere ta ondatuz inguratutako leku aretak legoña ta kiskala ziran nagusi, dana eguzki-galda.

Larosondo bat bakar-bakarik oindiño bizirik, oso igartu baga. Ofiak eze, buru-zut eta loran.

Josu arengana eldu zan; lepoan ekaren seda-moltsoa beyan itxi ta larosa ongilearen itzalpean ezari zan.

Berealaxe larosa-lora guztiak batu ziran, alkar artuta edaturik ustai usaintsua eratu eutsen buru-gain.

Larosok egilea ezagutu noski.

Kukuluak makurturik, bañuan euken azken iruntz tanta bakaña Jaungoiko-Gizonaren bekoki ixetu gañera egotzi eben.

Ondoren, legun-legun, igitu ziran, eta ure-osto meak ara-onak erabilirik erlearen murmuña baño ots eztia goa, uretxindoraren txorotxioa baño oyu sentikoragoa atera eben.

Josu, loren usain eta abestiz sorgor, loak artuta geratu zan.

Itxartu zaneko, otoi-moltso bati su emonik sarkalde-  
ra joyan eguzkia; aize otz-epela ebilan. Josu'k, jagita,  
larosa ongileari eskar onez begiratuz:

—Larosondo edera, ots egin eban, zu izan zara nire  
loaren zaindari; zer nai dozu saritzat?

Itz oneik entzunik, lora bakotxak bere eretxia agertzen dau. Pipilik txikienak be, euren burutxoari eraginda, batzar aretan zer-edo-zer zirala erakutsi gura.

Ixitxera ziran azkenez; eta danetatik zañenak, ori-zabal egoan batek, abar makurtua pizkat jaso ta itz nagusi oneik ebazi ebazan:

—Gaurtik iñoz baño be edefagoak izan gura dogu.

Ikaraz Josu. Añokeriak, aingeruak puztu ta gizonak galdu ebazan añokeriak dar-dar egian lora artean be. Gauza itxusi ta nabarmena ziñez.

Eta, asare, oroldiz beteriko lur-piloa eskuan artu ta aroputz areikana bota eban, iñotsela:

—Aroak eztau Jauna'ren adiskidetasunik, ezesgada-ta.

Loratxoak, damuaren-damuz, ondo yatorken zigaren aurean buruak lueratu ebezan.

Josu'k, bariz, aren damuaz erukitu ta zugaztxoa one tsi eban.

Eta bat-batean, jau alatza! oroldiak, adar guztien gainzabaldu, arantzak estali, pipilak gorde ta lorak jantz zoragariz inguratu ebazan.

Damutu ziralako Josu'k parkatzen dautse: damutu zu be, pekatari, ta Josu'k azketsiko dautzu.

Or **oroldi-lafosearen** sortze ta jatoria.

J. K. O.

## Laratza ta Nekosta

(SELGAS)

*Oinkada luzez dator gaba lañotsua,  
Árats-zoriak, garbi ta betondo-itunik,  
Zelai ta lora-baratz yoriak itxirik,  
Gañeko euna bildu dau eskututsua.*

*Ara-onak kulunkaz sarats zimel-meak,  
Barne-lor iraunkoá zerbaiz arintzeke,  
Aize-egoz dabiltzu aren oin ermo,  
Baú-ots bizi-legun ta intziraz betea:*

*«Atsege yaio nintzan... Izaki-zorunak  
Ba-dirak, bariz, ludi baltz onetan naiko,  
Lor, zotin ta ituna zer dan ez dakienak».*

*Au esanik,, oriak bera yakoz yausten.  
«Bean negar dagina zoriontsuago»,  
Darantzutso nekostak, ortzia begizten.*

JAGOBA